

Ekintzak ulertu

Gizaki indibidualaren izaera eta ekintzak ulertzen saiatzen den azalpen mota eta gizartearen izaera eta ekintzak ulertzen saiatzen dena bata besteari kontrajarrita agertzen dira maiz. Lehenengoak, ikuspegi *indibidualista* dei genezakeenak, pertsonaren izate eta jokabide razionala bere gogo-egoeren arabera azaldu ohi du. Indibiduoaren nahi, desio, helburu, uste, sineste, jakite eta asmoen bitartez ematen da bere ekintzaren arrazoiak berri. Gizarteak ez du inolako tokirik indibiduoaren jokabidearen azalpenean; edo, hobe esan, gizarteak betetzen duen eragin bakarra, beste indibiduoaren jokabideek eragin ditzaketenera mugatzen da, gizartea ez baita indibiduoaren multzoa besterik.

Bigarren ikuspegiak, dei dezagun *kolektibista*, giza ekintzan indibiduoaren intenzionalitate eta erabaki-askatasuna esistituko ez bailiran, gizarte mailako kategorien arabera esplikatzeko du gizakiaren ekintza; ekintza indibidualik ez dagoela esan daiteke, indibidua ez baita gizartearen osagaia besterik.

Giza ekintza ulertu nahi badugu, azalpen indibidualista eta kolektibista bateragarriak behar ditugu. Suizidioaren azalpen durkheimiarra, esaterako, argi asko ematen du gizarteari buruz, baina nekez har daiteke gure lagunak bere burua hiltzeko izan dituen arrazoiak argibide gisa; bere desio, uste eta asmoen berri igartzen saiatzea da esplikazio baten bila hasten dugun beste bidea.

Oteizabaleko Mikel epaituko dute laster, ustez bi ertzain tiroz hil zituelako. Bere jokabidea ulertu nahi badugu, alegia, bere ekintzaren zergatiak aurkitu nahi baditugu, gertakizunak argitu behar dira lehendabizi. Eta esplikatzeko saiatu, gero. Baina ez bide bakarrean. Mendebaldeko justizia sistemaren oinarri indibidualista kontutan hartuta, ez da harrizkeoa izango epaiketa horretatik ekintzaren azalpen partziala ateratzea.

Bestalde, Itsasondoko gertaeren ondoko lehen adierazpen publikotan, Martiarena eta Landa jaunak bat etorri ziren ekintza honen esplikazio kolektibista hutsa ematean: KASek gazteak Ertzantzaren aurka bultzatze politikaren ondorioa zuzena izan zen baten ustez, Ertzantzak gazteriaren aurkako errepresio bereziaren ondorioa bestearen esanetan.

Mikelen ekintza ezin da terminu horietan bakarrik esplikatu, nahiz eta egia alderdi batzu argitzeko balio izan dezaket, agian. Baina esplikazio osoa hori balitz, Mikel borondaterik eta erabaki-askatasunik

gabeko izakitzat hartu beharko genuke, gizarte mekanismo supraindividualek gidatzen duten automatatzat. Horregatik, garai hartan inork gutxi har zitzakeen Martiarena eta Landa jaunen adierazpenak gertakariaren argibidetzat. Are gutxiago, itxura guztien arabera *a priori* egindako adierazpenak zirenean, gertakariak ezagutu gabe, gertatutakoaren azalpena eman dezakeen lekuko bakarraren hitz bat bera ere entzun gabe. Guztia esplikatzeke balio duten azalpenak izaten diren modukoak, alegia.

Inor gutxi harritzen da dagoeneko egiaren bila ez dihoazen halako adierazpenekin. Aspaldian ez baita inoren helburu jendeak gertatutakoa jakin eta ulertzea; ez baitu interesik inor egiaz arduratzea. Jokabidea emozioan oinarritzen duen jendea behar da; zerbaiten/norbaiten alde eta beste zerbaiten/norbaiten kontra tinko eusteko, sobrare, emozioa bizi izan behar baita, nahiz arrazoia ilun.

KEPA KORTA
EHU-ko Filosofia Irakaslea